

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure proiektuaren oinarria diseinua da eta horren ondorioz ez dugu baliabide fisikorik izango, ez dugulako ezer ekoizten. Baliabide intelektualak dira garrantzi handiena dutena proiektu osoan, gure helburua ikasgela edo enpresa baterako lan gela perfektu bat diseinatzea delako. Gainera, denborarekin gure proiektua hobetzen saiatuko gara, horregatik hobekuntzak bilatzen egongo gara denbora guztian. Giza-baliabideek ere garrantzia dute, diseinua egin ondoren transportea eta muntaketa dator. Gure enpresarekin elkarlanean ari diren beste enpresa batzuek erosleei proiekturako beharrezkoak diren materialak garraiatu dizkie. Behin materiala bertan dagoela gurekin erkarlanean dagoen beste enpresa batek muntatu egin beharko du gela edo ofizina eta erabiltzeko prest utzi. Gainera, arazoren bat egongo balitz teknologia arloan gure esku geratuko litzateke konponketa.

